



Plazatxoa edo aparkalekua saskibaloi kantzaren orde

Kiroldegi ondoko saskibaloi kantxa lurrera bota dute. Bertan, plaza-txoa edo aparkalekua egingo dute.

Duela 15 bat urte egin zuen Udalak, Telefonica eraikinaren eta Serapio Mujika kaleko 7, 9 eta 11 zenbakidun etheen arteko lurzoruan, estalitako saskibaloi kantzaxa. Hasieran, kirol gunea dezente erabiltzen zen. Ingu-rumarietako ikastetxe batzuetan ez zegoen kantxarik eta, beraz, Bidebietara jotzen zuten. Lehen urteetan, bestalde, bazegoen tenisean jokatzeko aukera, aurretik sarea kiroldegian eskatuta. Azken urteetan, baina, inork gutxi jokatzeko zuen bertan. Ez ikastetxeetako taldeek, ezta auzoko saskibaloizaleek ere. Hortaz, duela zenbait aste estalkia eta saskiak kendu zituzten. Alberto Rodriguez Hiri Mantentze zinegotziak jakinarazi digunez, hartu emanak

izan ditu inguruko bizilagunekin bertan zer egin daitekeen zehazteko. *"Bizilagunek pare bat proposamen egin dute: plazatxoa -zenbait eserleku-rekin- edo hogei bat autorentzako lur gaineko aparkalekua. Aldiz, parkea egiteak ez du zentzurik, oso argi gutxi sartzen baita leku horretan"*, dio Alberto Rodriguezek.

Aparkalekua egingo balute, auzotar guztiak autoa utzi ahal izango luketela aurreratu

Danborradaren entseguak

Bidebietako danborradaren entseguak hastear dira. San Sebastian egunean auzoan barrena ibiliko diren danborrariek hila-ren 12an, 13an, 14an, 16an eta 17an entseatuko dute, 20.00etan, Bidebieta elkartearen aurrealdean. Hilaren 15ean, osteguna, entsegua 19.30ean izango da, eta fanfareak lagunduta jardungo dute danborradako kideek.

digu Rodriguezek. Alegia, ez litzateke izango soilik inguruko bizilagunentzat. Saskibaloi kantzaxa zegoen tokian aparkalekua edo plazatxoa egingo ote den erabakitzeke, luze jo gabe, auzotarrekin bilera egingo duela jakinarazi digu zinegotziak.

Jolastokia berritu dute

Gabonen aurretik Juan Karlos Gerra kaleko parkeko jolastokia zaharberritu zuten. Jolastokiko zabuak eta txirrista ez zeuden zorura behar bezala finkatuta, eta parkean bildu ohi diren gaztetxoek sinadurak bildu zituzten Udalak jolastokia konpon zezan.



Loiola

Urumea Gurea-ren egutegian



Urumea Gurea elkarteko lagunek 2004ko egutegia kaleratu dute. Elkarteko kide Iñaki de Miguel-ek Txomin Eneko zenbait eraikinen irudiak ordenagailuz landu ditu, eta hilabeteen gainean irudi bana jarri du. Iñakik azaldu digunez, *"egutegiaren helburua gure webgunea- www.urumea.org- eta, oro har, Urumea inguruko auzoak sustatzea da. Iaz Loiolari buruzko egutegia egin genuen, aurtun Txomini buruzkoa egin dugu eta datorren urtean Martuteneko eraikinak aterako ditugu"*. Egutegian ageri diren eraikinak zein irizpideren arabera aukeratu dituen galdetuta, honako dio Iñakik: *"Finean, gaur egun edo iraganen Txomineko eguneroko bizitzan zerikusia duten edo izan duten eraikinak nabarmendu nahi izan ditut"*. Egutegia Donostiako kultur etxe guztietan doan eskura daiteke.

Kultur agenda

Urtarrilak 9 ostirala
Urtarrilak 18 igandeak



"Hirisladak" Amara Berrin

Igor Calzada musikariak eta Harkaitz Cano idazleak "Hirisladak" kultur ikuskizuna eskainiko dute ostegunean, urtarrilak 15, Amara Berriko Ernest Lluch kultur etxeko areto nagusian, 19.30ean. Errezitatutako literatur pasartez, kantuz eta irudiz osatutako ikuskizuna atondu du bikote donostiarrak. Ikus-entzunezko arloan, Oianko Txoperenaren laguntza izango dute.

Jabier muguruza Lugaritzen

Jabier Muguruza kantariak kontzertua eskainiko du ostiralean, urtarrilak 16, Antiguako Lugaritz kultur etxean, 22.00etan.

Musikari irundarrak "Enegarren postala" diskoak aurkeztuko ditu bertan. Muguruzaren lan berriak azken urteotako diskoen ildoari eusten dio hein handi batean. Joseba Sarrionandia, Iñaki Irazu, Jon Benito eta beste hainbat idazleren letrak kantu bihurtu ditu Muguruzak. Musika aukera erakargarria da, zinez.



Musika talde donostiarrak Gazteszenan

Nuevo Catecismo Católico, Surfin Kaos, Valium Generation eta Captain Nemo musika talde donostiarrek kontzertu ikusgarria eskainiko dute larunbatean, urtarrilak 10, Egiako Gazteszena aretoan, 23.00etik aurrera. Rock gaupasa itzel horretan dj-ak ere ariko dira. Auzoko Ttanttakun irratiak antolatu du aipatu musika festa handia. Sarrera doan izango da.

Harlax eta Ikus Aitzan

Harlax eta Ikus musika taldeek kontzertua eskainiko dute ostiralean, hilak 9, Aitzan kultur etxean (Larralxo pasealekua 55), 21.00tan. Lezoko Harlax taldeak "Ez diren gauzak ere badira" diskoa aurkeztuko du. Nu metal estiloko musika da nagusi Harlax taldearen proposamen berriari. Baita beste Garazako Ikus taldeak programazioan dituzten musikak metale eta melo-diauztaren diru.

